

Barnetik

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Balkoian, eguzki argitan ekin diot zutabe honi. Inguruan jende gehiago ikusten dut antzera, bitaminaz elikatzen. Soinu bakarrak, txorien txorrotxioa eta eltze hotsa, bazkalorduaren seinale. Aspaldi GAUR8ko txoko honetan kukurik egin gabe. Egia erran, hilabete baino gehiago eman nuen udazken-neguan idatzi gabe; barnera so.

Ez zitzaidan ateratzen, eta arraroa egi- ten zitzaidan, oroitzen naizenetik izan dudalako barrenak paperean askatzeko ohitura. Beharra. Grina. Baina oraingo- an ez. Ez kontatzekorik ez nuelako; justu

kontrakoa. Barne iraultza bat hasia nuen.

Bidaia horretan, segituan agertu zi- tzaizkidan betiko ikasgaiak: beldurrak kudeatzearena, nire burua ezagutzeare- na, garrantzitsua dena eta ez dena be- reiztearena, bertzeen beharra dudala ohartzearena. Kanpotik begiratuta ez nintzen aunitzik mugitzen; barrutik, or- dea, izugarri. Ametsak horren isla ziren. Mugimendu horiek guztiak ametsetan gauzatzen ziren.

Barrenean zu deskubritzearekin bate- ra, ni haurra ere ikusi dut, eta ni gazte- txoa, eta ni lan munduan sartu berri-

tan... Aldatu naiz, baina berbera naiz. Al- di ezberdinetako niei begiratu eta iden- tifikatu egiten naiz.

Poliki-poliki “berrogeialdi” hura buka- tzen ari zela sentitu nuen, eta ateratzen hasi nintzen, konpartitzen. Lehenengo batekin, ongi sentitzen nintzela eta ez zela deus pasatzen ikusita bertze bate- kin... behar nuen erritmora.

Gustura nenbilen berriro kalean, jen- dearekin harremanetan... harik eta, us- tekabea, bertze berrogeialdi bat etorri den arte, oraingoa orokorra. Nire espe- rientzia xumetik, animo! Badugu ohi- tzeke gaitasuna, barnera zein kanpora. •

Lainopean

**Xabier Mikel
Errekondo**

Koronabirusak harrapatu gaitu bere atzaparretan, eta lainotzar beltzaren ilunpean gabiltza itsutasunean, besterik ez baili- tzan lez. Ala agian bai, agian usaintzen dugu Zaldibarko zein Zubietako erraus- tegiko dioxina-kiratsa. Norbere etxeeta- tik, Urkullu lehendakariak ezarri berro- gei aldian.

Herritarren osasuna dago jokoan, hel- duena bereziki, bai, baina tokian-tokian bada egoera kaltegarri honi onurarik ateratzen ari zaionik ere. Zer gehiago ez- kutatzen du lainotzarrak? Birus nimi- ñoa hainbat arazo erraldoi ari da estal- tzen. Ohikoa, manualekoa izaten da

agintariek arazo baten presioa gainetik kentzeko herritarren atentzioa bigarren arazoren batera desbideratzeko taktika, ahalegin horretan krisi berri bat sortu behar badute ere.

Eta ez naiz ari ustelkeriaz, egun herri- tarrei gehien kezkatzen dieten gaiez baizik: lan baldintzen duintasuna eta arrakala, eta herritarren osasuna arnas- tean, edatean eta jatean.

Zaldibar argitu! Zubietako erraustegia ez ireki! Erresidentzietako langileak... Baina konfinatuta egonik ezin jarraitu antolaketa sozialarekin, ez protestekin.

Eta negozio ttipiak itxita dauden bi- tartean enpresa handien irabaziak ja-

rrai dezaten milaka langile elkarren on- doan lanera behartuak... agintarien beti- ko leloa. CAF, Mercedes eta beste enpre- sa hainbateko langileen duintasunak soilik apurtuta.

Lainotzarpean Netflixek ito baino le- hen heldu elkartasunari eta eman irudi- menari. Irudikatu Zaldibarko langile biak beren senideekin, irudikatu erraus- tegia itzalita, birziklatuta eta aire garbia geure inguruan.

Atera leihora, bidali begirada iraindua Jaurlaritzari eta Aldundiari, eta egin txalo Zololuzetarrei, Beltrandarrei eta Zaldibar eta Zubieta inguruko herrita- rrei. •